



360/2024 EBAZPENA, otsailaren 21ekoa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Dermatologiako Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari gerentearen irailaren 26ko 1622/2023 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Barrualde-Galdakaoko ESIko Dermatologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2023ko abenduaren 12ko EHAA 235. zk. eta 2024ko urtarrilaren 5eko BOE 5. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2024ko urtarrilaren 26an amaitu zen.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari gerentearen otsailaren 1eko 230/2024 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Dermatologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.



Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Galdakao, otsailaren 21a.



Barrualdea-Galdakaoko zuzendari gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA





I. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAO KO ESI-KO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA
IZENeko LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- M.Victoria Morillo Montañes

Baztertuak:

- Inork ez



II. ERANSKINA

**BARRUALDE-GALDAKAKO ESI-KO DERMATOLOGIAKO ZERBITZU
SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA**

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: David Cantero Gonzalez jn. (Barrualde-Galdakaoko ESIko Zuzendari Medikoa)

Ordezkoa: Miren Martinez Ayuso and. ((Barrualde-Galdakaoko ESIko Arreta Integratuaren Zuzendaria).

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Mainer Garmendi Zallo and. (Ezkerraldea-Enkarterri –Gurutzeta ESIko Zuzendariorde Medikoa)

Ordezkoa: Lorenzo Rodriguez Gonzalez and. (Barrualde-Galdakaoko ESIko Zuzendariorde Medikoa).

Bigarren batzordekidea

Titularra: Marcos Gonzalez Lopez jn.(Marques de Valdecilla Unibertsitate Ospitaleko Dermatologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Ricardo Gonzalez Perez jn.(Arabako ESIko Dermatologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua)

Laugarren batzordekidea (IVAPek proposatutakoa)

Titularra: Rosa M. Izu Beloso and.(Bilbao-Basurtu ESIko Dermatologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua)

Idazkaria:

Titularra: Amaya de Allende Achalandabaso and (Barrualde-Galdakaoko pertsonaleko Zuzendaria).

Ordezkoa:Maite Yergui Huarte and.((Barrualde-Galdakaoko pertsonaleko Zuzendariordea).